

# ORIOKO UDAL-KANPINA 2024-2027 INBERTSIO-PROPOSAMENAK



	<b>ORIOKO UDAL-KANPINA</b> <b>2024-2027 INBERTSIO-PROPOSAMENAK</b>		
	<b>ORIOKO UDALA</b>	<b>2024ko otsaila</b>	

## AURKIBIDEA

### 1.- AURREKARIAK

- 1.1.- BILAKAERA HISTORIKOA
- 1.2.- LANGILEAK
- 1.3.- 2011N BUNGALOWAK JARRI AURRETIKO OKUPAZIO-MAILAK
- 1.4.- 2012-2015 INBERTSIO PLANA
- 1.5.- OKUPAZIOAREN EBOLUZIOA

### 2.- GAUR EGUNGO EGOERA

- 2.1.- LANGILEAK
- 2.2.- DATU EKONOMIKOAK

### 3.- DATOZEN 3 URTEETARAKO INBERTSIO-PROPOSAMENAK

- 3.1.- IGERILEKU KLIMATIZATUA
- 3.2.- GAUR EGUNGO IGERILKUAN BUNGALOW BEREZIAK
- 3.3.- BESTELAKO BUNGALOW GUNEA
- 3.4.- AISIALDIKO TXABOLA
- 3.5.- KOMUNAK BERRITZEA
- 3.6.- ERAIKIN NAGUSIAREN AURREKO LURRA BERRITZEA
- 3.7.- HOBEKUNTZA-LANAK TELEKOMUNIKAZIOETAN, ARGINDARREAN ETA ARGITERIAN
- 3.8.- HOBEKUNTZA-LANAK KANBINEKO TABERNAN
- 3.9.- KANPO ESPAZIOEN TXUKUNKETA ETA EGONKORTZE-LAN OROKORRAK
- 3.10.- LOREZAINZAKO HOBEKUNTZAK
- 3.11.- HAUR-PARKEAREN HOBEKUNTZA

### 4.- INBERTSIO-PLANAK

### 5.- INBERTSIO-PLANAREN AMORTIZAZIOA

- 5.1.- DIRU SARREREN GEHIKUNTZA POSIBLEAK
- 5.2.- AURREIKUSITAKO KOSTUEN GEHIKUNTZA
- 5.3.- AMORTIZAZIO-AURREIKUSPENA

### 6.- ONDORIOAK

	<b>ORIOKO UDAL-KANPINA</b> <b>2024-2027 INBERTSIO-PROPOSAMENAK</b>		
	<b>ORIOKO UDALA</b>	<b>2024ko otsaila</b>	

# 1.- AURREKARIAK

## 1.1.- BILAKAERA HISTORIKOA

Orioko Udaleko artxiboan dauden datuen arabera, Orioko hondartzan 1961ean ezarri zen kanpina lehenengo aldiz. Lursailaren jabea beti Udala izan bada ere, lehenengo 20 urteetan, 1980 arte, kudeaketa Donostiako Garoa SA enpresak eraman zuen.



*Kanpina 1967an*

1981ean, Garoari kudeaketa-kontratua amaitu zitzaienez, Udalak kanpinaren kudeaketa bere gain hartzea erabaki zuen. Horretarako, kanpina handitu, berritu eta egokitzeko lanak egin ziren. Obra haren ondorioz, kanpina 400 partzela edukitzera pasa zen eta aisialdirako zerbitzu ugari ere eskaintzen zituen:

- Bi igerileku: bat helduentzat eta bestea haurrentzat
- Tenis-pista bat
- Squasheko bi pista

Lehenengo urtean igerilekua bai kanpineko bezeroek eta bai kanpokoek erabil zezaketen; baina, bigarren urtetik aurrera eta gaur egun arte, igerilekua kanpineko bezeroek erabiltzeko bakarrik izan da. Tenis eta squash pisten erabilera, berriz, beti izan zen bai kanpoko eta bai kanpineko bezeroentzat. Partzelen kudeaketari dagokionez, %25 bezero finkoekin bete zen eta gainerako %75 pasaerako bezeroentzat ziren.

	<b>ORIOKO UDAL-KANPINA</b> <b>2024-2027 INBERTSIO-PROPOSAMENAK</b>		
	<b>ORIOKO UDALA</b>	<b>2024ko otsaila</b>	



*Udal-kanpina 1988an*

Pertsona-kopuruari dagokionez, 400 partzelako kanpinak 1.600 pertsonentzako edukiera zuen. Nahiz eta edukiera osoa betetzea ia ezinezkoa izan, 1.000 pertsonatik gora askotan egoten ziren, honek herriarentzat suposatzen zuen guztiarekin. Kontuan izan behar da herriak garai hartan 5.000 biztanle inguru zituela.

1997an Orioko hondartzako obren lehenengo fasea egin zen. Kanpinak 40 partzela, komun eta dutxen eraikin bat, tenis pista eta squasheko bi pistak galdu zituen. 2003an Orioko Udalak, aho batez, Hondartza Plana behin betiko onartu zuen. Lan horien bigarren fasean kanpinak beste 182 partzela galdu zituen. Ondorioz, kanpina, 178 partzela izatera pasa zen; hasiera batean zituenak baino %55,5 gutxiago.

Bigarren murrizketa horrek eragin handia izan zuen kanpinaren jardueran:

- Langile-kopurua jaitsi zen
- Etekin ekonomikoa jaitsi zen
- Kanpinaren eraginak herriko jarduera ekonomikoan ere beherakada nabarmena izan zuen.

Datu hauek eskuan izanda, Orioko Udalak garbi zuen kanpinaren jarduera eta etekinak hobetzeko aldaketa bat bultzatu behar zuela eta berritze- eta egokitze-lan bat abian jarri behar zuela. Hausnarketa horren ondorioz, azken urteetan kanpinean bungalowak instalatzea pentsatu zen. Erabakia hartu aurretik, 2011n Orioko kanpinaren berrikuntzari buruzko azterlan teknikoa egin zuen. Azterlan horretan bungalowak instalatzearen bideragarritasuna landu zen.

Azterlan horren emaitzetan oinarrituta, Udalak kanpinean bungalowak ezartzea erabaki zuen 2013an.

	<b>ORIOKO UDAL-KANPINA</b> <b>2024-2027 INBERTSIO-PROPOSAMENAK</b>		
	<b>ORIOKO UDALA</b>	<b>2024ko otsaila</b>	



*Orioko hondartza eta kanpina 2011n*

## 1.2.-LANGILEAK

Kanpinak edukieran izan dituen aldaketen arabera aldatu izan da han lanean jardun diren pertsonen kopurua. Udalak taberna eta supermerkatuaren kudeaketa adjudikatuta dauka eta, beraz, atal horretan aipatzen diren pertsona-kopuruetan ez dira sartzen zerbitzu horiek. Udalak beti bultzatu izan du kanpineko langileak oriotarrak izatea eta une hartan kanpineko langile guztien artean bat bakarra zegoen oriotarra ez zena.

- Kanpinak 400 partzela zituenean: urte osoan 6 langile finko jarduten ziren eta uda garaian, ekainetik irailera, beste 14 pertsona kontratatzen ziren.
- Kanpinak 178 partzela zituenean: urte osoan 3 langile finko zituen, eta uda garaian 10 pertsona kontratatzen ziren.


	<b>ORIOKO UDAL-KANPINA</b> <b>2024-2027 INBERTSIO-PROPOSAMENAK</b>		
	<b>ORIOKO UDALA</b>	<b>2024ko otsaila</b>	

### 1.3.- 2011N BUNGALOWAK JARRI AURRETIKO OKUPAZIO-MAILAK

Ondoko tauletan kanpinak azken urteetan eduki duen okupazio-maila agertzen da. Tauletan garbi ikusten denez, kanpinak estazionalizazio handia du: uztaila eta abuztuan beti beteta egoten da, baina urteko beste hilabete guztietan asko jaisten da okupazio-maila. Bungalowak ezartzearen arrazoi garrantzitsuenetako bat desestazionalizazioa lortzea izan zen: udaberri eta udazkenean ere okupazio-mailak igotzea.

#### Partzelen okupazioa


	2006	2007	2008	2009	2010	2011
Martxoa	58	42	157	119	332	111
Apirila	641	389	274	346	792	814
Maiatza	602	414	571	402	507	488
Ekaina	1390	1444	1361	1405	1273	1190
Uztaila	3883	3692	3612	3636	3733	3625
Abuztua	4039	3936	3977	4004	4186	3987
Iraila	1375	1172	982	919	784	993
Urria	307	186	214	187	230	489
Guztira	12295	11275	11148	11018	11837	11697



	<b>ORIKO UDAL-KANPINA</b> <b>2024-2027 INBERTSIO-PROPOSAMENAK</b>		
	<b>ORIKO UDALA</b>	<b>2024ko otsaila</b>	

### Pertsonen kopurua

	2006	2007	2008	2009	2010	2011
Martxoa	104	120	400	272	891	215
Apirila	1700	1174	466	748	1919	2157
Maiatza	1239	610	1003	1058	1108	933
Ekaina	2805	2312	2025	3307	1965	2617
Uztaila	8661	7353	7416	8952	9024	9079
Abuztua	9091	8451	8792	10514	10223	10564
Iraila	3031	2421	1689	2046	2014	2281
Urria	637	337	294	376	465	1285
Guztira	27268	22778	22085	27273	27609	29131



	<b>ORIOKO UDAL-KANPINA</b> <b>2024-2027 INBERTSIO-PROPOSAMENAK</b>		
	<b>ORIOKO UDALA</b>	<b>2024ko otsaila</b>	

### 2012 denboraldia PARTZELA OKUPAZIOA

#### Hilabeteko okupazio

	EGUN KOPURUA	PARTZELA KOPURUA	OKUPATUTAKO PARTZELAK	OKUPAZIO PORTZENTAIK
Martxoa	30 egun	4020	47	1,17%
Apirila	30 egun	4020	383	9,53%
Maiatza	31 egun	4154	665	16,01%
Ekaina	30 egun	4020	1643	40,87%
Uztaila	31 egun	4154	3880	93,40%
Abuztua	31 egun	4154	4039	97,23%
Iraila	30 egun	4020	1388	34,53%
Urria	31 egun	4154	495	11,92%
Azaroa	12 egun	1608	146	9,08%
<b>GUZTIRA</b>	<b>257</b>	<b>34304</b>	<b>12686</b>	<b>36,98%</b>

Gastuak 2012 \_\_\_\_\_ 451.876€

	<b>Kanpina</b>	<b>359.743</b>
1 1000.120.751.00.01	Kanpineko langileen oinarritzko ordainsariak	32.000
1 1000.121.751.00.01	Kanpineko langileen ordainsari osagarriak	50.000
1 1000.130.751.00.01	Kanpineko langile finkoen ordainsariak	55.000
1 1000.131.751.00.01	Kanpineko behin-behineko langileen ordainsariak	140.000
1 1000.160.751.00.01	Kanpineko langileen gizarte segurantza	76.000
1 1000.160.751.00.04	Kanpineko langileen Elkarkidetza	5.000
1 1000.162.751.00.01	Kanpineko langileen prestakuntza	122
1 1000.162.751.00.05	Kanpineko langileen bizitza aseguruak	1.621
	<b>Kanpina</b>	<b>92.133</b>
	<b>Kanpina</b>	<b>540.000</b>
2 1000.311.05	Tasa: kanpineko egonaldiak	540.000

Diru sarrerak 2012 \_\_\_\_\_ 540.000€



	<b>ORIOKO UDAL-KANPINA</b> <b>2024-2027 INBERTSIO-PROPOSAMENAK</b>		
	<b>ORIOKO UDALA</b>	<b>2024ko otsaila</b>	

#### 1.4.- 2012-2015 INBERTSIO PLANA

KANPINEKO AZPIEGITURAK BERRITZEKO LANAK		2012-2015
2012-2013	<b>KANPINEKO AZPIEGITURAK BERRITZEA</b>	<b>662.713,32 €</b>
2012	Azpiegiturak berritzekolanak I. Fasea	244.726,00 € Bukatuta
2013	Fijoak leku-aldatzeko lanak- Azpiegiturak berritzeko lanak II. Fasea	76.205,02 € bukatuta
	Argindarra berritzeko lanak II. Fasea	38.718,00 € bukatuta
	Argindar instalakuntzaren proiektua et alegalizazioa-OCA	4.365,00 €
	Bungalow-ak jartzeko azpiegitura lanak. Azpiegituren III Fasea	196.945,14 € bukatuta
	Bungalow-ak jartzeko argindar instalakuntza III. Fasea	17.994,00 € bukatuta
	Emergentzi plana berritzea	17.958,79 € bukatuta 2.200,00 € bukatuta
	Taberna eremu kanpoko lanak-Muroa	13.028,33 € bukatuta 20.053,04 € bukatuta
	Piszina Aldeko Segurtasun bailatuak	20.290,00 € bukatuta
	Bailatu gehigarriak	5.125,00 € bukatuta
	Fijoen zaborra jasotzeko erabilitako kontenedoreak	2.284,00 € bukatuta
	Kanon-a	2.741,00 € bukatuta 80,00 € bukatuta
2012-2013	<b>BUNGALOW-EN HORNIKUNTZA ETA INSTALAKUNTZA</b>	<b>705.995,00 €</b>
2013	Bungalow-en hornikuntza Garnika	705.995,00 € bukatuta
2013	kanpineko Bungalow-etako ensereak	28.000,00 € bukatuta
2013	<b>TABERNA-DENDA EGOKITZEKO LANAK</b>	<b>175.318,28 €</b>
2013	Taberna egokitzeko lanak	165.877,41 € bukatuta
	Irisgarritasuna hobetzeko lanak	9.440,87 € bukatuta
2013	Kanpineko landareak( bungalow eta etxeen artean)	4.979,80 € bukatuta
2014	<b>Eraikin nagusia berritu-</b>	<b>150.000,00 € bukatuta</b>
2015	<b>Kanpoko espaloia zabaldu-hesa kendu plaza berriak atera</b>	<b>40.000,00 € bukatuta</b>
<b>TOTALA</b>		<b>1.739.006,40 €</b>


Urte horietan, 1.740.000 euroko inbertsioa egin zuen Udalak: 34 bungalow jarri, plaza berriak sortu eta kanpineko azpiegiturak berritu ziren.

Inbertsio horiek egin ahal izateko, urte horietan, Udalak 260.000 euroko laguntza jaso zuen Eusko Jaurlaritzako Itsaspen programatik.

Guztira beraz, 1.500.000 euroko inbertsioa egin zuen Udalak.

	<b>ORIOKO UDAL-KANPINA</b> <b>2024-2027 INBERTSIO-PROPOSAMENAK</b>		
	<b>ORIOKO UDALA</b>	<b>2024ko otsaila</b>	

## 2013tik aurrerako datuak



Urteko gastuak kontuan hartuta, udal-kanpina 300.000 euro inguruko etekina lortzen ari da azken urteetan.


**Bungalowak jarri eta 10 urtetara, beraz, egindako inbertsioa amortizatu da eta kanpinak etekinak ematen ditu.**

	<b>ORIOKO UDAL-KANPINA</b> <b>2024-2027 INBERTSIO-PROPOSAMENAK</b>		
	<b>ORIOKO UDALA</b>	<b>2024ko otsaila</b>	

## 1.5.- OKUPAZIOAREN EBOLUZIOA

2012-2022 KONPARAKETA PARTZELA OKUPAZIOAN


	2012 OKUPAZIO PORTZENTAIK	2019 OKUPAZIO PORTZENTAIK	2022 OKUPAZIO PORTZENTAIK
Martxoa	1,17%	14,58%	23,01%
Apirila	9,53%	19,06%	29,74%
Maiatza	16,01%	27,39%	50,99%
Ekaina	40,87%	61,17%	69,71%
Uztaila	93,40%	94,77%	94,96%
Abuztua	97,23%	95,49%	95,36%
Iraila	34,53%	60,81%	68,58%
Urria	11,92%	23,81%	39,52%
Azaroa	9,08%	2,41%	10,90%



2022 denboraldia BUNGALOW OKUPAZIOA

Hilabeteko okupazio

	2022 OKUPAZIO PORTZENTAIK
Martxoa	3,24%
Apirila	26,67%
Maiatza	21,25%
Ekaina	43,24%
Uztaila	88,24%
Abuztua	93,64%
Iraila	43,82%
Urria	21,25%
Azaroa	18,55%
<b>GUZTIRA</b>	<b>41,66%</b>



## 2022 denboraldia

Hilabeteko okupazio

	EGUN KOPURUA	PARTZELA KOPURUA	OKUPATUTAKO PARTZELAK	OKUPAZIO PORTZENTAIK
Martxoa	30 egun	3090	711	23,01%
Apirila	30 egun	3090	919	29,74%
Maiatza	31 egun	3193	1628	50,99%
Ekaina	30 egun	3090	2154	69,71%
Uztaila	31 egun	3193	3032	94,96%
Abuztua	31 egun	3193	3045	95,36%
Iraila	30 egun	3090	2119	68,58%
Urria	31 egun	3193	1262	39,52%
Azaroa	13 egun	1339	146	10,90%
<b>GUZTIRA</b>	<b>257</b>	<b>26471</b>	<b>15016</b>	<b>56,73%</b>

	<b>ORIOKO UDAL-KANPINA</b> <b>2024-2027 INBERTSIO-PROPOSAMENAK</b>		
	<b>ORIOKO UDALA</b>	<b>2024ko otsaila</b>	

Pertsona-kopuruari dagokionez, 2022ko datuen arabera:



### 2022 urteko okupazio datuak hilabeteka

	Okupatutako partzelak	Sarrera kopurua	Sarrera pertsonak	Pertsona kopurua	Zenbatekoa
Martxoa	711	349	888	1.712	16.995,80 €
Apirila	919	349	982	2.646	28.028,38 €
Maiatza	1.628	691	1.743	3.953	39.130,97 €
Ekaina	2.155	739	1.788	5.002	60.572,03 €
Uztaila	3.032	542	1.805	9.051	141.617,11 €
Abuztua	3.045	518	1.642	9.355	147.991,65 €
Iraila	2.055	744	1.763	4.933	61.054,67 €
Urria	1262	532	1322	3027	30.624,47 €
Azaroa	146	72	185	353	3.589,75 €
<b>GUZTIRA</b>	<b>14953</b>	<b>4536</b>	<b>12118</b>	<b>40032</b>	<b>529.604,83 €</b>

Beraz, 2011n izan zen 29.131 pertsonako kopurutik 2022ko 40.032 pertsonetara pasatu gara; eta %36,98ko batez besteko okupaziotik, %56,73ra.

Kontuan hartu behar da ia 11.000 erabiltzaile «berri» horiek Orioko herrian ere onura ekonomikoa uzten dutela.

	<b>ORIOKO UDAL-KANPINA</b> <b>2024-2027 INBERTSIO-PROPOSAMENAK</b>		
	<b>ORIOKO UDALA</b>	<b>2024ko otsaila</b>	

## 2.- GAUR EGUNGO EGOERA

Bungalowen instalaziorako 2012-2015 urteetan zehar eginiko inbertsioen ondorioz, kanpinaren eskaintzaren dibertsifikazioa lortu zen. Eskaintza zabaldu eta aberasteak jende gehiagoren nahiak asetzera eraman du kanpina. Eta garrantzi handia izan du estazionalizazioa gutxitzeko bidean. Gaur egun kanpina 8 hilabete eta erdi inguru egoten da irekita, martxoaren hasieratik azaroaren 10a aldera.

Bungalow hauek beste 10 urteko bizi iraupena geratu ahal zaiela aurreikusi daiteke. Horretarako, ordea, urtez-urte haien kontserbazioan inbertitu beharko den kopurua handituz joan beharko da, mantenu orokorraren barruan aurreikusita.

### 2.1.- LANGILEAK

Kanpinaren edukiera eta okupazioaren eboluzioaren arabera aldatu izan da han lanean jardun diren pertsonen kopurua. Udalak taberna eta supermerkatuaren kudeaketa esleituta dauka eta, beraz, atal honetan aipatzen diren pertsona-kopuruetan ez dira sartzen zerbitzu horiek.

- Kanpinak 400 partzela zituenean: urte osoan 6 langile finko jarduten ziren eta uda garaian, ekainetik irailera, beste 14 pertsona kontratatzen ziren.
- Kanpinak 178 partzela zituenean, 2011n: urte osoan 3 langile finko zituen; beste 4, aldiz, 8 hilabetetan jarduten ziren lanean; eta, uda garaian, 10 pertsona kontratatzen ziren.
- Kanpinak, gaur egun, 104 partzela, 37 finko eta 34 bungalow ditu eta 2 langile aritzen dira urte osoan; beste 11 langilek 8 hilabete eta erdiz egiten dute lan; 4 gehiagok 4 hilabetez egiten dute lan uda garaian. Gainera, ordezkapenak eta oporrak egiteko, beste 2 pertsona gehiago kontratatzen ditu Udalak epe eta portzentaje desberdinetan.

Beraz, datu horiek kontuan hartuta, langileen kontratazioa gehitu, luzatu eta egonkortu egin da azken urte hauetan zehar.

	<b>ORIOKO UDAL-KANPINA</b>		
	<b>2024-2027 INBERTSIO-PROPOSAMENAK</b>		
	<b>ORIOKO UDALA</b>	<b>2024ko otsaila</b>	

## 2.2.- DATU EKONOMIKOAK

### Datu finantzieroak

Partzela kopurua	Guztira 141
Pasarako partzelak	104
Partzela finkoak	37

Bungalow kopurua	Guztira 34
1 logela	6
2 logela	24
3 logela	4

Tarifa partzelak	
Denboraldi baxua	20,91 €
Denboraldi altua	38,77 €
Extra denboraldia	43,00 €
Zubiak	31,05 €

Tarifa bungalow	1 logela	2 logela	3 logela
Denboraldi baxua	67,55 €	82,00 €	107,64 €
Zubiak	80,18 €	99,77 €	127,45 €
Tarteko denboraldia	97,50 €	125,27 €	154,00 €
Denboraldi altua	102,50 €	133,50 €	165,00 €

Eguneko diru sarrera kopuru maximoa		
Denboraldi baxua	Guztira 145 egun	406.553,64 €
Bungalowak (behe)		2.803,82 €
Denboraldi baxua	Guztira 145 egun	315.309,09 €
Partzelak (behe)		2.174,55 €
<b>Guztira eguneko</b>		<b>4.978,36 €</b>
Zubiak	Guztira 50 egun	169.272,73 €
Bungalowak		3.385,45 €
Zubiak	Guztira 12 egun	38.744,73 €
Partzelak		3.228,73 €
<b>Guztira eguneko</b>		<b>6.614,18 €</b>
Tarteko denboraldia	Guztira 29 egun	122.018,82 €
Bungalowak		4.207,55 €
Tarteko denboraldia	Guztira 56 egun	225.812,36 €
Partzelak (altua)		4.032,36 €
<b>Guztira eguneko</b>		<b>8.239,91 €</b>
Denboraldi altua	Guztira 32 egun	143.328,00 €
Bungalowak		4.479,00 €
Denboraldi altua	Guztira 44 egun	196.768,00 €
Partzelak (extra)		4.472,00 €
<b>Guztira eguneko</b>		<b>8.951,00 €</b>
<b>Denboraldi osoa</b>	<b>Guztira 257 egun</b>	<b>149.584,68 €</b>
Partzela finkoak eguneko		582,04 €

**Beteta denboraldi guztian 1.767.392,05 €**

2023ko fakturazioa 1.187.000,00 €

**Gehieneko fakturazioaren 67,16%**

%67,18 fakturatu da, hau da, kanpina lehen egunetik azken egunera %100 beteta izango bagenu fakturatuko genukeenarekiko oso portzentaje altua (bereziki, kontuan hartu %100 2 hilabete inguru direla soilik).

### Kanpineko gastuak 2023:

PROGRAMA FUNTZIONALA, GUZTIRA:	751.071,06
TOTAL PROGRAMA FUNCIONAL:	

2023an, kontabilitateko departamentuaren azken zifrak ikusteko faltan, kanpinaren etekina 435.929 € ingurukoa izan da, beraz.

	<b>ORIOKO UDAL-KANPINA</b> <b>2024-2027 INBERTSIO-PROPOSAMENAK</b>		
	<b>ORIOKO UDALA</b>	<b>2024ko otsaila</b>	

### 3.- DATOZEN 3 URTEETARAKO INBERTSIO- PROPOSAMENAK

Bungalowak jarri zirenetik 10 urte pasa direla-eta garai eta behar berrietara egokitzeko proposamena landu nahi dugu, kanpinaren denboraldi ertaineko okupazioa handitu eta, ahal balitz, kanpina ia urte osoan irekita eduki ahal izateko.


Helburu horrekin, 2021-2022an igerileku berri bat egiteko egitasmoa landu du Udalak. Ondorengo dokumentuaren bidez, kanpinean datozen urteetan proposatzen ditugun hobekuntzak eta inbertsio-plana zehaztuko dugu. Inbertsio-plan honetan zenbait aukera aztertuko ditugu eta udal-teknikariak saiatuko gara azaltzen aukera horietatik egokiena zein den eta zergatik.

Igerilekuak berritzeaz gain, egin beharko liratekeen hainbat lan aurreikusi dira. Datozen urteetan kanpinaren kalitatea hobetu, zaharkituta dauden instalazioak eguneratu, eraikuntzen jasagarritasuna eta irisgarritasuna hobetu eta aurrez aipatu diren helburuak lortzeko.

	<b>ORIOKO UDAL-KANPINA</b> <b>2024-2027 INBERTSIO-PROPOSAMENAK</b>		
	<b>ORIOKO UDALA</b>	<b>2024ko otsaila</b>	

### 3.1.- IGERILEKU KLIMATIZATUA

#### A1 Aukera: igerileku berria kokapena aldatuz



*Igerileku klimatizatu eta splash gune berriaren planoak*



	<b>ORIOKO UDAL-KANPINA</b> <b>2024-2027 INBERTSIO-PROPOSAMENAK</b>		
	<b>ORIOKO UDALA</b>	<b>2024ko otsaila</b>	

## RESUMEN DE PRESUPUESTO

PROYECTO DE EJECUCION DE LA ZONA DE OCIO ACUATICO EN EL CAMPING MUNICIPAL DE ORIO – GIPUZKOA

CAPITULO	RESUMEN	EUROS	%
1	DEMOLICIONES Y EXCAVACIONES .....	36.862,50	4,59
2	SANEAMIENTO ENTERRADO .....	9.484,21	1,18
3	FONANERIA HIDRAULICA INSTALACIONES .....	16.060,00	2,00
-03.01	-Instalación pediluvio .....	11.884,00	
-03.02	-Fontanería .....	4.176,00	
4	SANEAMIENTO FONTANERIA .....	4.678,19	0,58
5	SOLERAS Y HORMIGONES .....	33.399,00	4,16
6	ALBAÑILERIA Y REVESTIMIENTOS .....	36.194,43	4,51
7	PISCINA .....	310.030,40	38,60
-07.01	-Vaso de piscina prefabricada modular de acero inoxidable .....	255.680,40	
-07.02	-Elementos lúdicos y de relajación .....	54.350,00	
8	DEPURACION .....	131.630,00	16,39
-08.01	-Filtración automática alto rendimiento con perlita .....	83.829,00	
-08.02	-Sistema de producción de desinfectantes .....	32.340,00	
-08.03	-Deposito de compensación de 13000 l .....	9.840,00	
-08.04	-Obra civil .....	5.621,00	
9	SPRAY PARK .....	103.446,00	12,88
-09.01	-Parque de Agua Pulverizada de Orio .....	103.446,00	
10	HERRERIA .....	21.615,00	2,69
11	INSTALACION DE CALENTAMIENTO AGUA PISCINA CON FOTOVOLTAICA .....	86.101,08	10,72
12	SEGURIDAD Y SALUD .....	7.576,40	0,94
-12.01	-INSTALACIONES DE BIENESTAR .....	2.710,27	
--12.01.01	--ACOMETIDAS A CASETAS .....	718,67	
--12.01.02	--CASETAS .....	1.991,60	
-12.02	-SEÑALIZACIÓN .....	488,67	
--12.02.01	--BALIZAS .....	210,60	
--12.02.02	--CARTELES OBRA .....	58,59	
--12.02.03	--SEÑALIZACIÓN VERTICAL .....	35,22	
--12.02.04	--INDUMENTARIA ALTA VISIBILIDAD .....	184,26	
-12.03	-PROTECCIONES COLECTIVAS .....	1.164,54	
--12.03.01	--PROTECCIÓN DE ARQUETAS Y POZOS .....	97,56	
--12.03.02	--BARANDILLAS Y VALLAS .....	1.066,98	
-12.04	-EQUIPOS DE PROTECCIÓN INDIVIDUAL .....	832,31	
--12.04.01	--E.P.I. PARA LA CABEZA .....	277,91	
--12.04.02	--E.P.I. PARA EL CUERPO .....	205,44	
--12.04.03	--E.P.I. PARA LAS MANOS .....	43,50	
--12.04.04	--E.P.I. PARA LOS PIES Y PIERNAS .....	305,46	
-12.05	-MANO DE OBRA DE SEGURIDAD .....	2.380,61	
13	GESTION DE RESIDUOS .....	6.158,41	0,77
<b>TOTAL EJECUCIÓN MATERIAL</b>		<b>803.235,62</b>	
	13,00 % Gastos generales .....	104.420,63	
	6,00 % Beneficio industrial .....	48.194,14	
SUMA DE G.G. y B.I.		152.614,77	
	21,00 % I.V.A. ....	200.728,58	
<b>TOTAL PRESUPUESTO CONTRATA</b>		<b>1.156.578,97</b>	
<b>TOTAL PRESUPUESTO GENERAL</b>		<b>1.156.578,97</b>	

	<b>ORIOKO UDAL-KANPINA</b> <b>2024-2027 INBERTSIO-PROPOSAMENAK</b>		
	<b>ORIOKO UDALA</b>	<b>2024ko otsaila</b>	

## **A2 Aukera: A1 aukera estalkiarekin**

Igerilekuari estalki bilkor bat jartzea proposatzen dugu. Estalki horren kostua, 400.000 eurokoa izan daitekeela aurreikusten dugu.

### **Igerilekuari estalki bilkorra jartzeak arazo hauek sor ditzake:**

- Sabaiaren egituraren pieza desberdinak bateratzen dituen erdiko mekanismoa oso konplexua da. Funtzionamenduan arazoak izatea oso posiblea da.
- Erdiko mekanismoaren mantentze-lanak egiteko duen kokapena, altuera handian eta ur gainean.
- Mantentze-lan horiek instalazioa egin duen enpresak egin beharko ditu eta horrek haien prezio eta denboretara lotzen gaitu.
- Kondentsazioa.
- Itxi eta ireki egiteko, errailen gainean doan instalazioa da. Errailak, sarri, trabatu egiten dira eta horrek zaildu egiten du manipulazioa.
- Itxi eta ireki eskuz egin beharko lirateke.
- Jasaten ditugun haizete bortitzek puntualki kaltetu dezaketen instalazioa da.
- Motorizaziorako 12 motor aurreikusten dira. Horien mantenu eta matxura posibleek kezkatzen gaituzte.



*Igerileku klimatizatuaren sabai bilkorra, egitura.*

	<b>ORIOKO UDAL-KANPINA</b> <b>2024-2027 INBERTSIO-PROPOSAMENAK</b>		
	<b>ORIOKO UDALA</b>	<b>2024ko otsaila</b>	


### **B Aukera: egungo igerilekua egokitu**

2010ean aurkeztutako egitasmoan, gaur egungo igerilekuak hobetu eta splash-parke bat gehitzea aurreikusten zen.

Igerilekuak gaur egungo tokian utziz gero, lan hauek egitea proposatzen dugu:

- Gaur egungo basoari bolumena kendu eta hodi guztiak berritzea.
- Filtratze-sistema berritu eta makineria guztia berritzea.
- Igerileku handia irisgarria egitea.
- Splash-parke bat gehitzea.
- Igerilekuak partzialki berotzeko eguzki-plaka termikoak jartzea.

**Horren kostua hau izango litzateke: 490.000€ + BEZa.**



	<b>ORIOKO UDAL-KANPINA</b> <b>2024-2027 INBERTSIO-PROPOSAMENAK</b>		
	<b>ORIOKO UDALA</b>	<b>2024ko otsaila</b>	




*2010eko kanpineko igerilekurako proposatutako Splash parkea*

	<b>ORIOKO UDAL-KANPINA</b> <b>2024-2027 INBERTSIO-PROPOSAMENAK</b>	
	<b>ORIOKO UDALA</b>	

### 3.2.- GAUR EGUNGO IGERILEKUAN BUNGALOW BEREZIAK

#### A Aukera (igerilekua lekualdatuz)

Egungo igerilekuan bungalow gune berria sortu.



	<b>ORIOKO UDAL-KANPINA</b> <b>2024-2027 INBERTSIO-PROPOSAMENAK</b>		
	<b>ORIOKO UDALA</b>	<b>2024ko otsaila</b>	



Bungalow horiek egokitu ahal izateko obra zibila 150.000 eurokoa izatea aurreikusten dugu eta bungalowak hornitzea eta jartzea beste 240.000 euro.

	<b>ORIOKO UDAL-KANPINA</b> <b>2024-2027 INBERTSIO-PROPOSAMENAK</b>		
	<b>ORIOKO UDALA</b>	<b>2024ko otsaila</b>	

**B Aukera** (igerilekua egungo lekuan mantenduz)

Igerileku aldeko partzelatan bungalow bereziak jarri.



	<b>ORIOKO UDAL-KANPINA</b> <b>2024-2027 INBERTSIO-PROPOSAMENAK</b>		
	<b>ORIOKO UDALA</b>	<b>2024ko otsaila</b>	

### 3.3.- BESTELAKO BUNGALOW GUNEA

Soilik gelak

BUNGALOW GUNE BERRIA.  
GELAK



Horiek egokitzeko kostua hau litzateke: 70.000 €.








	<b>ORIOKO UDAL-KANPINA</b> <b>2024-2027 INBERTSIO-PROPOSAMENAK</b>		
	<b>ORIOKO UDALA</b>	<b>2024ko otsaila</b>	

### 3.4.- AISIALDIKO TXABOLA


#### A Aukera

Gaur egungo aisialdiko txabolari solairu bat gehiago ematea eta 180.000 €



#### B Aukera

Aisialdiko txabolaren teilatua berritu (egitura barne), zolata berria egin, isolatua, eta zoria berritu eta portxe bat gehitu: 100.000 €



	<b>ORIOKO UDAL-KANPINA</b> <b>2024-2027 INBERTSIO-PROPOSAMENAK</b>		
	<b>ORIOKO UDALA</b>	<b>2024ko otsaila</b>	

### 3.5.- KOMUNAK BERRITZEA

Azuleju arroxak duten komunak zahartuta ikusten dira eta horien azulejuak berritzeko beharra ikusten dugu.

Horretarako, komunak eta ekipoak desmuntatu behar dira, horrek dakarren eskulan guztiarekin.



Azulejuak berritu, manpara batzuk ordezkatu eta ispiluak berritzea aurreikusten dugu.

$$4 \times 30.000\text{€} + 15.000\text{€} = 135.000\text{€}$$

Igerileku aldeko komunak:  $2 \times 25000 = 50.000\text{€}$

Guztira, komunak berritzea: 185.000€

	<b>ORIOKO UDAL-KANPINA</b> <b>2024-2027 INBERTSIO-PROPOSAMENAK</b>		
	<b>ORIOKO UDALA</b>	<b>2024ko otsaila</b>	

### 3.6.- ERAIKIN NAGUSIAREN AURREKO LURRA BERRITZEA



Eraikin nagusiaren kanpoko hormigoizko zolata egoera txarrean dago. Horren konponketa egitea proposatzen dugu, inprimatutako hormigoizko zorua jarrita.

Lan hori egitearen kostua 35.000 eurokoa da.

### 3.7.- HOBEKUNTZA-LANAK TELEKOMUNIKAZIOETAN. ARGINDARREAN ETA ARGITERIAN

Argiteria berritu zela 10 urte bete dira. Argiburuak gutxinaka berritu eta megafonia eta wifi sistemak hobetu eta berritu beharko lirateke.

Horretarako 30.000 euroko aurrekontua aurreikusi daiteke datozen urteetarako.


	<b>ORIOKO UDAL-KANPINA</b> <b>2024-2027 INBERTSIO-PROPOSAMENAK</b>		
	<b>ORIOKO UDALA</b>	<b>2024ko otsaila</b>	

### 3.8.- HOBEKUNTZA-LANAK KANPINEKO TABERNAN

Kanpineko tabernan hobekuntza-behar hauek aurreikusten ditugu:

- Aldagela eta biltegia handitzea
- Plaka fotovoltaikoak jartzea
- Teilatuan argitasuna handitzea (veluxak)
- Iparraldeko portxea berritzea

Guztira, lan horiek egiteko aurrekontua 80.000 eurokoa izatea aurreikusten dugu.



	<b>ORIOKO UDAL-KANPINA</b> <b>2024-2027 INBERTSIO-PROPOSAMENAK</b>		
	<b>ORIOKO UDALA</b>	<b>2024ko otsaila</b>	

### 3.9.- KANPO ESPAZIOAREN TXUKUNKETA ETA EGONKORTZE-LAN OROKORRAK

Inguruko ezpondatoko landare eta zuhaitzak asko hazi dira. Garbiketa handi bat egin beharko litzateke eta, horrez gain, zenbait ezpondetan sareak jarri beharko lirateke harriak ez erortzeko.



Lan horien kostua 75.000 eurokoa izatea aurreikusten dugu.

### 3.10.- LOREZAINZAKO HOBEKUNTZAK

Zenbait seto eta zuhaitz osatu/berritu behar dira. Horrez gain, zona batzuetan lorategiak apaintzeko lanak egitea proposatzen dugu.

Lan horien kostua 10.000 eurokoa izatea aurreikusten dugu.

	<b>ORIOKO UDAL-KANPINA</b> <b>2024-2027 INBERTSIO-PROPOSAMENAK</b>		
	<b>ORIOKO UDALA</b>	<b>2024ko otsaila</b>	

### 3.11.- HAUR-PARKEAREN HOBEKUNTZA



Gaur egungo haur-parkea oso xumea da. Parke hori osatzea eta hobetzea proposatzen dugu, elementu singularren bat gehituz.

Horren kostua, 35.000 eurokoa izatea aurreikusten dugu.

	<b>ORIOKO UDAL-KANPINA</b> <b>2024-2027 INBERTSIO-PROPOSAMENAK</b>		
	<b>ORIOKO UDALA</b>	<b>2024ko otsaila</b>	

## 4.- INBERTSIO-PLANA ETA AMORTIZAZIOA

### A1- INBERTSIO PLANA

Piszina klimatizatu - leku aldaketa	1.100.000,00 €
Gaur Egungo piszinako plataforma egokitu eta bertan 5-6 bungalw egokitu	400.000,00 €
obra zibila	150.000,00 €
Bungalw bereziak	250.000,00 €
Bestelako gela motak?	70.000,00 €
Aisialdiko txabola hobetu eta handitu( solairu bat gehiago)	220.000,00 €
Komun zaharrak berritu( 6 unitate+fregatuko 2 tokia)	185.000,00 €
Eraikin zaharreko lurra berritu	35.000,00 €
Argiteria- Wi-fii-a hobetu-megafonia	30.000,00 €
Kanpineko tabernan hobekuntza lanak	80.000,00 €
kanpo espazioen txukunketa eta segurtasun sareak	75.000,00 €
Lorazaintzako hobekuntzak	10.000,00 €
Umeen parkea berritu- hobetu	35.000,00 €
<b>GUZTIRA INBERTSIOAK</b>	<b>2.240.000,00 €</b>

	<b>ORIOKO UDAL-KANPINA</b> <b>2024-2027 INBERTSIO-PROPOSAMENAK</b>		
	<b>ORIOKO UDALA</b>	<b>2024ko otsaila</b>	

## A2 -INBERTSIO PLANA

Pizina klimatizatua	1.100.000,00 €
Kanpoko pizinarean kubieta retraktila	400.000,00 €
Gaur Egungo piztinako plataforma egokitu eta bertan 5-6 bungalw egokitu	400.000,00 €
obra zibila	150.000,00 €
Bungalw bereziak	250.000,00 €
Bestelako gela motak?	70.000,00 €
Aisialdiko txabola hobetu eta handitu( solairu bat gehiago)	220.000,00 €
Komun zaharrak berritu( 6 unitate+fregatuko 2 tokia)	185.000,00 €
Eraikin zaharreko lurra berritu	35.000,00 €
Argiteria- Wi-fii-a hobetu-megafonia	30.000,00 €
Kanpineko tabernan hobekuntza lanak	80.000,00 €
kanpo espazioen txukunketa eta segurtasun sareak	75.000,00 €
Lorazaintzako hobekuntzak	10.000,00 €
Umeen parkea berritu- hobetu	35.000,00 €
<b>GUZTIRA INBERTSIOAK</b>	<b>2.640.000,00 €</b>



	<b>ORIOKO UDAL-KANPINA</b> <b>2024-2027 INBERTSIO-PROPOSAMENAK</b>		
	<b>ORIOKO UDALA</b>	<b>2024ko otsaila</b>	

## B-INBERTSIO PLANA

<b>Gaur egungo pizina eremua egokitu</b>	<b>487.000,00 €</b>
Gaur egungo pizinari edukiera kendu eta irisgarria egin	100.000,00 €
Depurazio sistema berritu-sistema hidraulikoa berritu	180.000,00 €
klimatizatze plaka solar termikoak-Aerotermita?	75.000,00 €
Splash parke bat	120.000,00 €
tobogan bat pizina handian	12.000,00 €
<b>Pizina aldeko partzelatan 4 bungaLow berezi jartzea</b>	<b>200.000,00 €</b>
<b>Bestelako gela motak?</b>	<b>70.000,00 €</b>
<b>Aisialdiko Teilatua berritu-Portxea eman eta zorua berritu</b>	<b>110.000,00 €</b>
<b>Komun zaharrak berritu( 6 unitate+fregatuko 2 tokia)</b>	<b>185.000,00 €</b>
<b>Eraikin zaharreko lurra berritu</b>	<b>35.000,00 €</b>
<b>Argiteria- Wi-fii-a hobetu-megafonia</b>	<b>30.000,00 €</b>
<b>kanpo espazioen txukunketa eta segurtasun sareak</b>	<b>75.000,00 €</b>
<b>Lorazaintzako hobekuntzak</b>	<b>10.000,00 €</b>
<b>Umeen parkea berritu- hobetu</b>	<b>35.000,00 €</b>
<b>GUZTIRA INBERTSIOAK</b>	<b>1.237.000,00 €</b>

	<b>ORIOKO UDAL-KANPINA</b> <b>2024-2027 INBERTSIO-PROPOSAMENAK</b>		
	<b>ORIOKO UDALA</b>	<b>2024ko otsaila</b>	

## 5.- INBERTSIO-PLANAREN AMORTIZAZIOA

Aurreikuspena, kanpina 8,5 hilabete irekita.

### 5.1.- DIRU-SARRERA GEHIKUNTZA POSIBLEAK:

	GOI Denb. %100	TARTEKO D. %80	ZUBIAK +H+B %80	BEHE Denb. %60	Finkoak %100	GUZTIRA	
<b>A AGERTOKIA</b> 1.367.477,57 BEZ-a gabe	143.328,00	97.615,16	135.418,00	243.932,34		620.293,50	bungalowak
	196.768,00	180.649,73	30.995,81	189.185,85		597.599,39	partzelak
					149.584,68	149.584,68	finkoak
<b>B AGERTOKIA</b> 1.181.501,38 BEZ-a gabe	143.328,00	97.615,16	101.563,50	162.621,56		505.128,22	bungalowak
	196.768,00	180.649,73	23.246,86	126.123,90		526.788,48	partzelak
					149.584,68	149.584,68	finkoak
<b>C AGERTOKIA</b> 981.884,52 BEZ-a gabe	143.328,00	73.211,37	48.807,58	81.310,78		346.657,73	bungalowak
	196.768,00	135.487,30	90.324,86	63.061,95		485.642,11	partzelak
					149.584,68	149.584,68	finkoak

**A agertokiaren** arabera, 2023ko fakturazioa baino 180.477,57€ + BEZa/urteko gehiago fakturatu daitekeela aurreikusten dugu. (2023ko fakturazioa 1.187.000 + BEZa). **Hau ikusten da agertoki egingarriena.**

**B agertokia**, gaur egungoa da eta aurreikusitako hobekuntzen ondorio positiborik ez izatea ez da posibilitate bat.

**C agertokiak** salmenten beherakada bat suposatuko luke, gure kontrolatik kanpo leudekeen gertakariengatik: pandemia, gerra, aldaketa klimatikoak sortutako kalteak edo gizartearen segurtasuna bermatuko ez luketen egoeraren bat. Horiek guztiak, gaur egun, aurreikusi ezinak dira.

	<b>ORIOKO UDAL-KANPINA</b> <b>2024-2027 INBERTSIO-PROPOSAMENAK</b>		
	<b>ORIOKO UDALA</b>	<b>2024ko otsaila</b>	

## 5.2.- AURREIKUSITAKO KOSTUEN GEHIKUNTZA

### Gaur egungo igerilekuaren mantentze-kostua

(Gaur egun 3 hilabete egoten da irekita)

Mantentze arrunta: 9.500€ + BEZa

Hornikuntzak (ura eta argindarra): 4.500€ + BEZa

Sorospena 3 hilabete: 25.300€ + BEZa

Guztira = 39.300€ + BEZa

### Igerilekua 5 hilabetez irekita, gaur egungo gastuarekiko kostu-igoera

Sorospena: 17.400 euroko gehikuntza

Mantenua: 6.300 euroko gehikuntza

Energia-hornikuntzaren kostuak: 3.000 euroko gehikuntza

Gehikuntza, guztira: 26.700€

	<b>ORIOKO UDAL-KANPINA</b> <b>2024-2027 INBERTSIO-PROPOSAMENAK</b>		
	<b>ORIOKO UDALA</b>	<b>2024ko otsaila</b>	

### 5.3.- AMORTIZAZIO-AURREIKUSPENA

**180.477 euroko urteko diru-sarrera gehikuntza izatea aurreikus daiteke urtero agertoki egingarrienean.**

2012-2015 arteko inbertsio-planean inbertitutako 1.500.000 euroak 2020-2021 urte ingururako amortizatu ziren.

Hurrengo urteetarako aurreikusitako aktuzioen amortizazioa hau litzateke inbertsio-plan bakoitzaren arabera.

PLANA	AURREKONTUA	URTEKO IRABAZI AURREIKUSPENA	AMORTIZAZIO URTEAK
A1 INBERTSIO PLANA	2.240.000,00	180.477	<b>12,41</b>
A2 INBERTSIO PLANA	2.640.000,00	180.477	<b>14,63</b>
B INBERTSIO PLANA	1.237.000,00	180.477	<b>6,85</b>

	<b>ORIOKO UDAL-KANPINA</b> <b>2024-2027 INBERTSIO-PROPOSAMENAK</b>		
	<b>ORIOKO UDALA</b>	<b>2024ko otsaila</b>	

## 6.- ONDORIOAK

**B inbertsio-planaren** arabera, igerilekua gaur egungo kokagunean utziko litzateke. Oinarrizkoak diren ezintasunak ikusten dizkiogu kokaguneari:

- Hotza, haizetsua eta ospela da.
- Igerilekuen instalazioak kaltetzen dituzten hosto eta bestelakoen erorketa handia da, bereziki ekaitzak direnean. Horrek luzatu eta zaildu egiten ditu mantentze-lanak.

Hori dela-eta, ez dugu egoki ikusten instalazio horien jasangarritasuna, irisgarritasuna eta modernizazioa ekarriko lituzketen inbertsioak kokagune horretan egitea.

**A1 eta A2 Inbertsio-planen** arteko diferentzia, igerilekuaren estalkia jartzea edo ez jartzea da.

Kanpinaren kokapena dela eta, haizeteen aurrean segurtasun-bermea emango digun estalki-modu bakarra topatu dugu. Lehenago gaia aztertu dugun puntuan azaldu ditugu estalkia jartzeari ikusten dizkiogun zailtasunak. Erabaki horren aurrean arrazoizko zalantzak sortzen dituzten zailtasunak dira.

Hori dela-eta, ikuspegi desberdinetako azterketa teknikoa eginda, **A1 inbertsio-plana** izango litzateke hautatua. Hitz gutxitan honela laburbiltzen dugu aukera hori:

- 1.- Igerilekua, kokagune berrian; Donostia, Bilbo eta Gasteiz kalean.
- 2.- Estalkia jartzeak emango dituen onurak eta oso posibleak ikusten diren kalteak balantzan jarrita, estalkirik gabea egitea, proportzioan ekarriko dituen onurak ziurtatzea arduratsuagoa dela uste dugu.
- 3.- 12 partzela galduko ditugunez, horien ordez, gaur egungo igerilekuan eta Zuberoa kalean berregituratze bat egitea. 6-10 bungalow berri jartzeko aukera ematen digun zonalde bereziago bat sortuz.
- 4.- Urte guztian gaur egun baino erabilgarriagoak izango diren txoko, txiki-txoko goxoak sortzea. Teilatua erabat berri behar dugunez, eraikinari bigarren planta bat ematea eta erabilera askotarako zerbitzu-gune berria sortzea.
- 5.- Lekeitio kalean identifikatua daukagun gunean alokairuan eman ahal izateko instalazio txiki bat egitea. Hasiara batean, 4 gela / 4 glamping aurreikusten ditugu.
- 6.- Eraikin nagusiko instalazioen irudi zaharkitua eguneratu, argitu eta gaur egun dugun garbitasun-irudia indartzea. Instalazio nagusietarako sarrera eta pasaleku orokorra hormigoi inprimatuarekin txukundu eta kohesionatzea, itxura zainduagoa emanez.

Hala ager dadin eta dagokion ondorio egokietarako, Orion 2024ko otsailaren 7an.

**Pilar Azurmendi, udal-arkitektoa**

**Jone Olaskoaga, udal-kanpineko zuzendaria**